

BITARTU-REN OROITIDAZKIA 2006

Euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko lanari dagokionez, BITARTUK 2006ko ekitaldian egindako jardueraren deskargu labur bat egin behar dugu. Lan hori kooperatiben artean, kooperatiben eta horien bazkideen artean, edo kooperatiben barruan organo sozial desberdinen artean edo bazkideen artean sortu eta berari aurkeztu zaizkion auzi-gaietan adiskidetzea, arbitrajea edo bitartekotza erabiliz egin du.

Horren haritik, azpimarratzekoa da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eta Kooperatiben Federazioek izenpetuko duten lankidetzeta-hitzarmena kooperatiba federatuetan sorturiko gatazkak konpontzeko eta dagokien sektorean sorturiko gatazketan prozedurazko esku-hartze sistema ezartzeko. Horrekin Bitartu-n gatazkak konpontzeko dauden zerbitzuak erabiltzea bultzatu nahi da, eta gatazka horietan esku hartzeari begira, Kooperatiba Federazioen eta EKGK-CSCEn artean jarduera-protokoloa zehaztea.

Eskertzekoa da adiskidetze-egile, arbitro eta bitartekari guztien lana bideratu diren espedienteetan, bokazio eta profesionaltasun handiz jokatu baitute uneoro.

Beste batzuetan ere esan izan dugun bezala, gure nahia ez da gatazkak konpontzeko arbitraje edo prozedura asko gauzatzea, baizik eta kooperatibetan nabarmentzen diren desadostasunak ez daitezela bideratu alderdi askotatik beti kostu handikoa izaten den epaitegietako bidetik, baizik eta Bitartuk kudeaturiko prozeduretakoren batetik.

Kontuan izanda Kooperatibetako bazkideei, Kooperatibetako ordezkariari eta alderdien abokatuei dedikazio edo arduraldia eskaini zaiela gai gatazkatsuetan baina gorago aipaturiko prozedura horietan sartu ezin direnetan, errazteko edo bitartekotza egiteko Bitartu-ren jardunak deituko ditugu.

Aipamen berezia merezi du “Bitartu” kooperatibetan gatazkak konpontzeko euskal zerbitzuaren lehenengo lehendakari izan den Juan Miguel Larrañaga Zabala jaunak, bere agintealdian Zerbitzuak kudeaturiko prozeduren dinamizatzaile nagusia izan baita, eta horregatik esker on berezia merezi du berak egindakoak; bere ondarearekin jarraitu ahal izatea espero du txosten hau izenpetzen duen lehendakari berriak, hura bere lehendakari-lanetan ezagutu ahal izan duten guztien adostasunarekin.

Izpta. FRANCISCO JAVIER SANZ
BITARTU-KO LEHENDAKARIA

- Gatazkek konpontzeko prozedura hauen kopurua eta bakoitzaren gaia honako hauek izan dira:

ARBITRAJEAK:

- ARB-1-2006: etxebizitza-kooperatiban esleitze-kontratua suntsitzea
- ARB-2-2006: etxebizitza-kooperatiban esleitze-kontratua balioztatzea
- ARB-3-2006: administratzaileen erantzukizuna
- ARB-4-2006: kapital-ekarpenak itzultzea
- ARB-5-2006: kapital-ekarpenak itzultzea
- ARB-6-2006: kapital-ekarpenak itzultzea
- ARB-7-2006: administratzaileen erantzukizuna
- ARB-8-2006: galerak bazkideei egozte
- ARB-9-2006: ez zen onarpenik lortu
- ARB-10-2006: administratzaileen erantzukizuna
- ARB-11-2006: kapital-ekarpenak itzultzea
- ARB-12-2006: kapital-ekarpenak itzultzea
- ARB-13-2006: erabakien aurka jotzea
- ARB-14-2006: bazkideen interesak kitatzea

ADISKIDETZEAK

- CON-1-2006: informazio-eskubidea
 - CON-2-2006: kapital-ekarpenak itzultzea
 - CON-3-2006: lan-indizeen zuzenketa
 - CON-4-2006: galerak egozte
 - CON-5-2006: kapital-ekarpenak itzultzea
 - CON-6-2006: etxebizitza-kooperatiban bazkide-izaera erabakitzea
- Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak bitartekotza-lana 3 espedienteetan egin du alderdien arteko harremanak errazteko, honako hauetan, alegia:
 - 1-2006: etxebizitza-kooperatibaren kitatzea
 - 2-2006: kapital-ekarpenak itzultzea
 - 3-2006: arbitraje-laudoa betetzea